



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainak 4**

**Vitoria-Gasteiz, 4 de junio de 2024**

## Segurtasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK ETA EUSKADIKO GURUTZE GORRIAK LANKIDETZA-HITZARMEN BERRIA IZENPETU DUTE LARRIALDIEN ETA BABES ZIBILAREN ARLOAN**

- **Gurutze Gorria Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemara atxikita dagoen boluntario erakundeetako bat da, eta esperientzia handia du Euskadin babes zibilaren eta herritarrei laguntza ematearen arloan**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Euskadiko Gurutze Gorriarekin larrialdien eta babes zibilaren arloan lankidetzaz hitzarmen berri bat sinatzeari, eta ekimen horrek bi aldeek 2019an sinatu zuten eta orain indarrean dagoen akordioa eguneratzea ekarriko du. Dokumentu horri esker, Euskadiko Gurutze Gorriaren Batzorde Autonomikoaren programak eta ekintzak hobeto koordinatu ahal izango dira Larrialdiei Aurre Egiteko Sistemarekin, indarrean dagoen araudiarekin eta erabilgarri dauden giza eta material baliabideekin bat etorritik.

Hitzarmen berriaren bitartez, 1995az geroztik egin den bezala, Segurtasun Sailak erakunde horren Urteko Jarduera Programan jasota dauden zereginak finantzatzeko diru laguntza izendun gisa, eta 2024ko ekitaldian diru laguntza hori 471.600 eurokoa izango da. Berez, zenbateko hori izango da erakunde horrek lurraldearen eta kostaldearen jarduera-eremuetan hartzen dituen konpromisoak betetzeko gastuak finantzatzeko.

Larrialdi-egoeretan mobilizatzeko Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren esku jartzen diren Gurutze Gorriaren bitartekoak eta baliabideak aurreikusitako urteko jarduera-programan zehaztuko diren arren, besteak beste, esku-hartze psikosozialarekin, lehorreko eta barruko uretako bilaketekin eta salbamenduarekin, osasun-laguntzarekin eta itsas salbamenduko baseekin lotutako larrialdietan berehala erantzuteko taldeak izango dira.

Azken batean, hitzarmen berriak bi alderdien arteko lankidetzaz antolatu nahi du, arrisku kolektibo larria, hondamendia, zorigaitz publikoa eta abar gerta daitezkeen egoeretan, erakunde horren giza baliabideen erabilera optimizatzen saiatuz, baita horretarako ematen zaizkien baliabide eta ekipamendu materialena ere, eta, aldi berean, arriskuak eta euskal herritarrek horrelako egoeren aurrean hartu beharreko neurriak hobeto ezagutzeko beharrezkoak jotzen diren babes zibilaren arloko gomendioak eta aholkuak zabaltzeko baterako konpromisoa islatuz.

Urteko programa babes zibileko planetan eta taktika operatiboetan xedatutakoari egokituko zaio, bai eta Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, diru laguntza kudeatzeaz arduratzen den erakundea izanik, ezarritako irizpide orokorreki eta lehentasunei ere.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### EUSKO JAURLARITZAK 73 MILIOI EURO BIDERATU DITU EMAITEK PLUS 2024 PROGRAMARA

- Emaitek Plus programak foku anitzeko zentro teknologikoen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko ikerketa kooperatiboko zentroen jarduera ez-ekonomikoa babesten du
- Eskaerak EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik 2024ko uztailaren 19ra arte aurkeztu ahal izango dira

Gobernu Kontseiluak, gaurko bilkuran, Emaitek Plus laguntza-programaren deialdia onartu du ekitaldi honetarako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko foku anitzeko zentro teknologikoen eta IKZ ikerketa kooperatiboko zentroen jarduera ez-ekonomikoari laguntzeko, eta finantzaketa esleitu die, jarduera globalaren emaitzen ebaluazioaren eta azterketaren bidez.

Laguntza horiek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak sustatzen ditu, eta **guztira 73 milioi euro** dira, bi zenbateko bereizitan banatzen direnak: **55 480 000** euro foku anitzeko zentro teknologikoentzat (“egokitzapen-maila emaitzetara bideratutako zentroaren eredura” izeneko ataleko dirulaguntzetarako 53 815 600 euro bideratzen dira, eta “zentroen jarduera-planak, 2020rako finkatutako adierazleen aginte-taulako helburuak lortzeko”, 1 664 400 euro); eta **17 520 000** euro ikerketa kooperatiboko zentroentzat (zenbateko hori, era berean, honela banatzen da: “egokitzapen-maila emaitzetara bideratutako zentroaren eredurako”, 16 994 400 euro, eta “zentroen jarduera-planak, 2020rako finkatutako adierazleen aginte-taulako helburuak lortzeko”, 525 600 euro).

Eskaerak EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik 2024ko uztailaren 19ra arte aurkeztu ahal izango dira, egoitza elektronikoaren bidez soilik.

<https://www.euskadi.eus/servicios/1007811/> (gaztelaniaz)

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1007811/> (euskaraz)

EMAITEK PLUS 2024 programako 73 milioi euroen aurrekontu-egozpena honako kreditu-banaketa honetan islatzen da:

<b>PARTIDAK</b>	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>GUZTIZKOA</b>
Teknologia 5413. IKZen Jarduketa Planak	367.920,00 €	157.680,00 €	<b>525.600,00 €</b>
Teknologia 5413. IKZen Jarduketa Planak	1.165.080,00 €	499.320,00 €	<b>1.664.400,00 €</b>
Teknologia 5413. IKZen Exekuzio Maila	11.896.080,00 €	5.098.320,00 €	<b>16.994.400,00 €</b>
Tecnología 5413. IKZen Exekuzio Maila	34.693.380,00 €	16.144.680,00 €	<b>50.838.060,00 €</b>
Berrikuntza Funtsa 5414. IKZen Exekuzio Maila	2.977.540,00 €		<b>2.977.540,00 €</b>
<b>GUZTIZKOA</b>	<b>51.100.000,00 €</b>	<b>21.900.000,00 €</b>	<b>73.000.000,00 €</b>

## Hezkuntza

### **HEZKUNTZA SAILAK 2,2 MILIOI EURO BIDERATU DITU LANBIDE HEZIKETAKO ITUNPEKO IKASTETXEETAN MAKINAK ETA EKIMIPAMENDUA ESKURATU EDO ERRENTAN HARTZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Lanbide Heziketako arloan dirulaguntzak deitzen dituen Agindu bat. Honen bidez, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeek makinak edota ekipamendua erosi edo errentan har dezaten dirulaguntzak ematen ditu Hezkuntza Sailak.

2.217.487 euroko diru-kopurua duen deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, makineria edota ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko kuotak finantzatzeko, bai eta makina edo ekipamendu horrek eragindako instalazio-gastuak finantzatzeko ere. Deialdi honek bi lerro bereizten ditu, jardueraren arabera:

1. eremua: modalitate presentzial osoan ezarritako Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeei zuzendua, heziketa-zikloak emateko beharrezkoak diren makinak eta/edo ekipamendua eguneratzeko. Eremu honek milioi bat euroko kopurua du.
2. eremua: eremu hau ere modalitate presentzial osoan ezarritako Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten ikastetxe integratu itunduei zuzendua da, baina 4.0 eta 5.0 inguruneen erronkei erantzungo dieten eta eraldaketa digitalerako eta Lanbide Heziketaren jasagarritasunerako planak ezarriko dituzten proiektuei ekiteko, kasu honetan. Eremu honek 1.217.487 euroko finantzazioa du.

Ikastetxeetatik jasoriko finantzazio eskaeren balorazioa egiteko, lehen eremuan, batzordeak kontuan hartuko dituen irizpideak honakoak dira, besteak beste: eskaera egiten duen ikastetxeak eskaintzen duen ziklo kopurua; ziklo horietan matrikulaturiko ikasle kopurua; erronketan oinarritutako ETHAZI ikaskuntza-metodologiak ikastetxean duen ezarpen-maila; edo ikastetxearen parte hartzea Hezkuntza Sailak bultzatutako ekintzailtza-programetan.

Bigarren esparrurako, berriz, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan balorazioa egiteko: eskuratutako ekipamenduaren egokitasuna, 4.0 eta 5.0 inguruneke berezko teknologiak inplementatzeko (errealitate areagotua edo birtuala, 5G sareak, elkarlaneko robotika, fabrikazio gehigarria, Internet industrial, sistema ziber-fisikoak, zibersegurtasuna, biki digitala, robotikari aplikatutako fabrikazio gehigarria...); ekipamendu horrek ikastetxean izango duen irismena; inbertsioak ikasleen eta irakasleen artean izango duen eragina; diruz lagundutako makineriak ikastetxean abiatutako proiektuekin duen lotura; edo teknologia hauetan irakasleak prestatzeko planak.

## **Eguneratzea**

Adimen artifiziala, robotika, droneak, 3D inprimagailuak, gauzen Internet, errealitate birtuala, sare digitalak eta gisa horretako berrikuntzak ondasunen eta zerbitzuen ohiko trukea erabat aldatzen ari diren fenomenoak dira gaur egun. Horiek guztiek, erronka handiak dakartzate enpresa-sektoreetara eta pertsonen prestakuntzara.

Testuinguru horretan, Euskadiko Lanbide Heziketak erronka handi bati heldu dio: pertsonen laguntzea eta prestakuntza ematea eraldaketa horretara egokitu daitezkeen eta errealitate berriak eskatzen dituen gaitasunak eta jarrerak gara ditzaten. Erronka horren aurrean, pertsonen enplegarritasunerako eta enpresen lehiakortasunerako funtsezko bidelaguna denez, Lanbide Heziketak etengabe eraldatzen jarraitu behar du, abangoardia teknologikoari eutsi behar dio eta ingurune adimendunetan murgiltzea sendotu behar du, ikasleek teknologikoki oso aurreratuak diren inguruneetan esperimendatzeko aukera izan dezaten, 5.0 soluzioen bidez.

Joan den urtean, deialdi honen bidez, Lanbide Heziketako itunpeko 60 ikastetxek jaso zituzten laguntza ekonomiko hauek lehen eremuan, eta 8 ikastetxek 2. eremuan.

## Hezkuntza

### **HEZKUNTZA SAILAK 930.000 EURO BIDERATU DITU BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZARI LOTUTAKO JARDUERAK BURUTZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, bizialdi osoko ikaskuntzako jarduerak burutzeko dirulaguntzatarako deialdia egiten duen Agindua. Deialdi honek 930.000 euroko diru-kopurua du.

Deialdi honek bizialdi osoko ikaskuntzako bi jarduera mota laguntzen ditu diruz. Jarduera horiek ezagutzaren edozein arlotakoak izan daitezke, betiere helduen ezagutza, kompetentzia eta gaitasun-maila zabaltzeko eta herritar aktiboak sustatzea helburu hartuta:

- Prestakuntza-jarduera espezifikoak, pertsona talde jakin baten prestakuntza-beharrei erantzuteko diseinatu eta planifikatutakoak (180.000 euro).
- Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak (750.000 euro).

Onartuak gertatzen diren proiektuek, eta ondorioz deialdi honen bidezko finantzazioa eskuratzen dutenek, 2024an zehar hasi beharko dute, eta 2025eko uztailaren 31ra bitartean garatu ahal izango dira. Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke: Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe pribatuak; udalak; tokiko edo eskualdeko garapen agentziak; euren helburu sozialen artean formazioa duten udal-elkargoak; Euskadin egoitza duten unibertsitateak; bizialdi osoko ikaskuntzaren arloan jarduerak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteak; eta euren helburuen artean formazioa duten merkataritza-elkarteak edo ekonomia sozialeko elkarteak.

Deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango dira, laguntzaren xede den jarduera garatzeko zuzenean inplikaturik dauden eta ezinbestekoak diren langileen gastuak, bai eta diruz lagundutako jarduera garatzetik zuzenean eratorritako funtzionamendu-gastuak ere.

2022an, aurreko deialdiaren bidez, 20 erakundek aurkeztutako 35 proiektu lagundu ziren diruz.

Bizialdi osoko ikaskuntzaren esparruko jardueren eskaintza zabala izateak aukera ematen die herritarrei ezagutzak lantzeko eta eguneratzeko, baita gaitasun profesionalak hobetzeko ere. Era horretan, enplegarritasuna hobetzeko eta ongizate sozial zein ekonomikoan aurrera egiteko bideak ere zabaltzen zaizkio gizarteari.

## Hezkuntza

### **HEZKUNTZA SAILAK 1,3 MILIOI EURO BIDERATU DITU BERRIKUNTZA PROIEKTUEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA-JARDUERETARAKO**

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran itunpeko ikastetxeentzako dirulaguntza deialdi bat onartu du. Honen bidez, laguntza ekonomikoak emango zaizkie 2024-2025 ikasturtean zehar euskararen erabileran sakontzeko berrikuntza-proiektuak egiten dituzten ikastetxeei. Honako etapa hauek ematen dituzten itunpeko ikastetxeei zuzentzen zaie deialdia: Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.

1.332.000 euroko diru kopurua duen deialdi honek bi modalitate bereizten ditu, aipaturiko berrikuntza proiektuak gauzatzeko:

A Modalidadea: Hizkuntza-komunikaziorako eta eleaniztasunerako gaitasuna garatzen duen ikastetxeko berrikuntza-proiektua, hizkuntzen tratamendu integral eta integratuaren bidez, bi hizkuntza koofizialak eta atzerriko hizkuntzak kontuan hartuta.

B Modalidadea: Ikastetxeko berrikuntza-proiektua. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna eta gaitasun eleanitza garatzen ditu, eta curriculum-arloak atzerriko hizkuntzetan irakasten ditu, CLIL (Edukiaren eta Atzerriko Hizkuntzaren Ikaskuntza Integratua) metodologiaren bidez, diziplinarteko proiektuen bidez, eremuka lanean, eta abar.

Deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango dira irakasleen prestakuntza jarduerak, beti ere Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua garatzeko proiektuei loturikoak. Besteak beste, honako hauek:

- Prestakuntza-jarduerak, hizkuntza-proiektuaren diseinuari eta garapenari lotuak.
- Ikuspegi didaktiko-metodologiko bati erantzungo dion prestakuntza, irakasleek hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala landu dezaten eta ikasleen komunikazio-kompetentzia garatzeko bide eman dezaten, metodologia aktibo eta berritzaileen bidez.
- Eguneratze metodologikoa, gutxienez hizkuntzaz besteko arlo edo irakasgai bat atzerriko hizkuntzan eman behar duten irakasleentzat (B modalitatean).
- CLIL (atzerriko edukien eta hizkuntzen ikaskuntza integratua)
- Alfabetatze aniztunak.
- Irakurketa irakasteko prozesuekin lotutako estrategia metodologikoak.
- Ikasleengan irakurketa-ohiturak garatzeko eta irakurketa sustatzeko estrategiak.
- Hizkuntza eskuratzeko prozesua: atzerriko hizkuntza bat goiz sartzea.
- Indarrean den curriculumaren jarraibideekin bat datozen curriculum-material berritzaileak sortzea.



- Hizkuntzaren tratamendua curriculumaren arlo eta jakintzagaietan: trebetasun kognitibo-linguistikoak.
- Komunikazio-kompetentzia garatzen lagunduko duten metodologia aktiboak.
- Hizkuntzen ikaskuntzan proposamen eta tresna digitalak aplikatzea eta ekoiztea.
- Gelan proposamen pedagogiko berritzaileak ezartzea, hizkuntza-trebetasunak eta eleaniztasun-kompetentzia garatzeko.

Deialdi honek 1.332.000 euroko zenbatekoa du orotara. Dirulaguntza hauek jasotzeko aukera izango dute nortasun juridikoa eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuekin estatutu edo araudi-harremanak dituzten federazio edo elkarteek. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe eta estatu mailako ikastetxeek osatu ahal izango dituzte federazio edo elkarte horiek, baina estatu mailako ikastetxeek osatutakoek Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute egoitza, hizkuntza-proiektua Euskadiko ikastetxeetan gauzatu beharko dute, hiru ikastetxe gutxienez EAEn izan beharko dituzte kokatuta eta itundutako 50 gelatik gora izan beharko dituzte.

## Hezkuntza

### **350.000 EURO STEAM HEZKUNTZAKO BERRIKUNTZA-PROIETUAK GARATZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, itunpeko ikastetxeek 2024-2025 ikasturtean STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektuak gara ditzaten dirulaguntzak ematen dituen Agindua.

350.000 euroko diru kopurua duen deialdi honen helburua da, Euskadin Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten itunpeko ikastetxeetan 2024-2025 ikasturtean STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektuak garatzea (*Science, Technology, Engineering, Art & Mathematics*).

Deialdi hau Hezkuntza Sailaren STEAM Euskadi Estrategiaren baitan kokatzen da. Aipaturiko estrategia horren helburuak honako hauek dira: hezkuntza-etapa guztietan hezkuntza eta prestakuntza zientifiko-teknikoa sustatzea, horretarako eragile sozioekonomikoak inplikatur; STEM eremuan bokazio eta asmo profesionalak inspiratzea, arreta berezia jarriz neskengan; eta euskal herritarren artean kultura zientifiko-teknologikoa sustatzea.

Laguntza hauek eskuratzeko interesa duten ikastetxeek STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektu bat aurkeztu beharko dute, 2024-2025 ikasturtean beren geletan garatuko dutena. Proiektu horiek gorago adierazitako helburuak bete beharko dituzte. Proiektuen ezaugarrien artean, aipatzekoa da, ikasleei ebatzi beharreko erronka edo arazo bat planteatzen dieten egoeretan oinarrituko direla proiektuok, bizitzako hainbat arloekin lotuta (pertsonala, soziala, globala, lanekoa). Gainera, honako printzipio hauek hartu beharko dituzte kontuan: ikasgaien irakaskuntza integratua (diziplinartekotasuna), STEAM eremuari lotutako gaitasunen garapena, ikerketan/arakatzean oinarritutako ikaskuntza, genero ikuspegia, ekitatea, eta STEAM lanbide-bokazioetan oinarritutako ikaskuntza.

2023-2024 ikasturtean, deialdi honen bidez, itunpeko ikastetxeek aurkeztutako 104 proiektu finantzatu ditu Hezkuntza Sailak. Sare publikoan berriz, 169 proiektu izan dira finantzatuak ikasturte honetan.

## Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

### **EUSKO JAURLARITZAK 1,07 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU BIZITEGI- ERAIKINEN SEKTOREKO BERRIKUNTZARAKO LAGUNTZETARA**

Gobernu Kontseiluak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburu Iñaki Arriolak eskatuta, Euskadiko bizitegi-eraikuntzaren sektorean eraikuntza-eta arkitektura-kalitatea, jasangarritasuna eta berrikuntza sustatzeko Eraikal programaren laguntzen deialdia egiteko agindua onartu du.

Aginduak bost jarduera-ildo ditu, eta dirulaguntza jaso dezakete. Aurrekontua, guztira, 1,07 milioi eurokoa da urte honetarako. Eraikal laguntzak honako sektore hauetako erakunde eta profesionalentzat dira: egoitza-eraikinen eraikuntza eta eraberritzea, arkitektura- eta ingeniari-tz zerbitzu teknikoak, kalitate-kontrolako erakundeak, higiezinaren sustapena eta enpresen eta profesionalen taldeak edo elkarteak, besteak beste.

- Lehenengo ildoak eraikuntzaren kalitatea hobetzeko berrikuntza-proiektu edo -azterketetara bideratuta dago, bai eraikin berrietara (eraginkortasun energetikoa, Eraikuntzako Kode Teknikoaren aplikazioa, proiektuaren eta obraren kontrola, etab.) bai lehendik daudenak birgaitzera (domotikako soluzioen aplikazioa, kontserbazioari buruzko azterlanak, irisgarritasunaren hobekuntza, etab.) bai etxebizitzaren bizigarritasunari buruzko analisietara, besteak beste.
- Bigarren ildoak tresna edo plataforma informatikoen garapena –kode irekikoak izateko ezinbesteko betekizunarekin– eta sektorearen etengabeko prestakuntza bultzatzen ditu.
- Hirugarren ildoak bizitegi-eraikuntzan kudeaketa-sistemen ezarpena eta ziurtapena (BIM, ISO, etab.) sustatzea du helburu.
- Laugarren ildoak eraginkortasun energetikoarekin eta jasangarritasunarekin lotutako ziurtagiriak ezartzera bideratuta dago (LEED edo Passivhaus, esaterako).
- Bosgarren ildoak bizitegi-eraikinetan prozesuen industrializazioa azpimarratzen du, azterlanak, proiektuak eta prototipoak edo eraikin pilotuen zatiak sortuz, horiek aztertu eta monitorizatzeko.

Erakunde interesdunek bi hilabetez aurkeztu ahal izango dituzte beren proiektuak –memoria bat, aurrekontu bat eta zabalkunde-plan bat barne–, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta diruz lagundutako jarduerak 2026ko ekainaren 30a baino lehen amaitu beharko dira.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **ELANKIDETZAK TOKIKO ERAKUNDE BATEN PARTAIDETZA ETA LIDERGOA BABESTUKO DITU NIGERREN ETA SAHELEN**

Gobernu Kontseiluak 50.000 euroko dirulaguntza onartu du Nigerko Biztanleria Ahulari Laguntzeko Elkarteari (DIKOri) eta Bakerako Lankidetzaz Batzarrari (BLB/ACPPri) zuzendua. Laguntza horrekin, eLankidetzaz-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailekoa, Nigerko eta Sahel eskualdeko programa humanitarioetan parte hartzea eta lidergoa bultzatuko du.

Tokiko eragileak erdigunean jartzeko eta krisi humanitarioak pairatzen dituzten herritarren parte-hartzea bultzatzeko konpromisoak pixkanaka dokumentu instituzionaletan islatzen diren arren, esperientzia arrakastatsuak behar dira beste erakunde batzuen eredu eta inspirazio gisa.

BLB/ACPP-ren laguntzari esker, DIKO tokiko erakundeak jardunbide egokiak ditu parte-hartze arloan, bere programa humanitarioen erdigunean lan egiten duen komunitateen beharrak eta nahiak jartzen baititu. Era berean, Nigerren dauden erabakitze eta koordinazio humanitarioko guneeetan egotea lortu du; izan ere, gune horien protagonistak, batez ere, nazioarteko erakundeak eta Nazio Batuen agentziak dira.

Zuzeneko laguntza horren bidez, eta DIKOren eskutik, Nigerreko erakundeen partaidetzari eta kontu-emateari buruzko prestakuntza bultzatuko da, bai eta Sahel mailako beste erakunde batzuekin trukeak antolatu ere, koordinazio humanitarioko guneeetan eragina izan dezaten. Gainera, tokiko biztanleek beren diskurtsoa Nigerreko eta Euskadiko gizarte zibilaren artean zabalduko da.

Ekimenak eLankidetzaren lehentasun estrategikoei erantzuten die, eta, bereziki, Ekintza Humanitarioko Estrategian jasotzen diren partaidetzaren, kontu-ematearen eta lokalizazioaren aldeko apustuei.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 150.000 EUROKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA ONARTU DU ITSAS KULTURA-ONDAREA BALIOAN JARTZEKO PROIEKTUENTZAT**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Euskadiko itsas kultura-ondarea osatzen duten itsasontziak eta ekitaldiak babesteko eta ezagutzera emateko jarduerak sustatzeko dirulaguntzen deialdia, haien balio historiko, etnografiko, arkeologiko edo sozialean oinarrituta. Guztira 150.000 euro banatuko dira diruz lagundu daitezkeen lau jardun-ildo hauetan sartzen diren proiektuen artean:

1. Zurezko ontzietan egindako lanak, musealizatzeko (50.000 euro).
2. Jendeari zerbitzua emateko egurrezko ontziak armatzea eta prest jartzea (60.000 euro).
3. Pertsona fisikoen edo irabazi-asmorik gabeko elkarten jabetzako zurezko ontziak konpontzeko eta egokitzeko gastuak, lizentziak izapidetzeko gastuak, euskal portuetako atrakaleku egonkorren gastuak eta itsasontziaren nabigaziorako baimenak barne (20.000 euro).
4. Zurezko itsas kultura-ondarea balioan jartzeko elkarte edo erakunde publiko edo pribatuek egindako ekitaldiak (20.000 euro).

Diruz lagundu daitezkeen proiektuak 2024an hasitakoak edo hasiko direnak izan beharko dira, eta gehienez ere abenduaren 31ra arte gauzatu beharko dira. 2023ko deialdian itsas kultura-ondarea balioan jartzeko 22 proiektu lagundu ziren diruz.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 1,5 MILIOI EUROTAN HANDITUKO DU GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAN PARTE HARTZEA ARTELANAK EROSTEKO HELBURUAREKIN**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du “Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporánea de Bilbao, S.L.” sozietatearen kapital gehikuntza. Guztira Eusko Jaurlaritzak 1.499.519 euro bideratuko ditu kapital-gehikuntzara. “Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporánea de Bilbao, S.L.” sozietatearen helburua edozelako arte-lan eta sorkuntza motak eskuratu eta ustiatzea da, baita arte-erakusketak eta erakustaldian antolatzea ere.

Otsailaren 29an egindako ez ohiko bileran hartu zen kapitala gehitzearen erabakia 2024an Guggenheim Bilbao Museoaren bilduma propioko eskuratze-programa garatu ahal izateko. Eusko Jaurlaritzak 1,5 milioi euroko gehikuntza egingo du eta ondorioz 63,8 milioi eurokoi partaidetza izango du “Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporánea de Bilbao, S.L.” sozietatean, hau da, orain arte bezala kapital sozialaren %50a. Gainontzeko %50-a Bizkaiko Foru Aldundiarena da.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK GOI-MAILAKO KIROL LEHIAKETAK ANTOLATZEKO 200.000 EUROKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA ONARTU DU**

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak Euskadin egiten diren goi-mailako kirol lehiaketen antolaketa diruz laguntzen du eta horretarako 200.000 euroko diru partida onartu du gaur Gobernu Kontseiluak. Goi-mailako kirol lehiaketatzat joko dira nazioarteko eremua eta izaera duten lehiaketak eta deialdi honetatik kanpo geratuko dira kirol-erakusketa edo ikuskizunak eta nazioarteko eremu eta izaera hori ez dutenak. Honako hauek dira lagundu daitezkeen jarduerak:

- Nazioarteko federazio baten, europar federazio baten edo nazioarte-mailako liga profesional baten egutegi ofizialaren barruan egotea.
- Mundu-mailako lehiaketetan, bi kontinentetako edo gehiagotako kirolariek parte hartzea.
- Lehiaketa guztietan, bi herrialdetako eta gehiagotako kirolariek parte hartzea.
- Zirkuitu edo liga formatuko lehiaketetan, bi herrialdetan edo gehiagotan antolatzea.
- Tenisaren kirol-modalitateari dagokionez, honako hauek izango dira dirulaguntzen helburu: Europar Federazioaren, Tenis Profesionalaren Elkartearen eta Kirol Egokituaren Nazioarteko Federazioaren egutegi ofizialean sartuak diren kirol-lehiaketak.
- Surfaren kirol-modalitateari dagokionez, honako hauek izango dira dirulaguntzen helburu: Nazioarteko Elkartearen, Europar Federazioaren eta Surfari Profesionalen Elkartearen egutegi ofizialean sartuak diren kirol-lehiaketak.
- Boxeoaren kirol-modalitateari dagokionez, honako hauek izango dira dirulaguntzen helburu: nazioarteko titulu ofizial bat lor daitekeen goi-mailako kirol-lehiaketak.

Gaur onartu den deialdiaren bitartez 2024ko ekitaldiko gastuak finantzatu ahal izango dira. Dirulaguntza eskatzeko epea hilabetekoa izango da deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2023ko deialdian 27 goi mailako kirol proba lagundu ziren diruz besteak beste Bilbao Night Marathon, Igorreko Nazioarteko ziklokrossa, Gran Premio Ciudad de Eibar, Araba World Tennis Tour Femenino, Durango-Durango Emakumeen Saria, Juan Muguerza Nazioarteko Krosa, Uliako Gimnastika Proba eta Ordiziako Klasika.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK HIRU MILIOI EUROREKIN LAGUNDUKO DITU EUSKAL KULTURA ONDAREAREN GARRANTZIA AZPIMARRATU ETA HEDATZEKO PROIEKTUAK**

Euskal Kultura Ondarearen legeak jasotzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta haren lurralde historikoen administrazioek lan publikoa finantzatzera zuzendutako aurrekontu-atalen % 1 baliatu behar dute, gutxienez, Euskal Kultura Ondarea osatzen duten ondasunak kontserbatzeko, zaintzeko, haien zabalkundea egiteko eta haien balioa nabarmentzeko. Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika saila da aurrekontu hori kudeatzearen arduraduna eta horri erantzuten dio Gobernu Kontseiluak gaur onartu duen deialdia. Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2024-2026 aldirako dirulaguntzak banatzeko deialdiak hiru milioi euroko aurrekontua du.

Honako hauek dira deialdi honetan diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

- Kultura-ondareari balioa ematea, hau da, kultura-ondasunak ezagutzeko, balioa emateko, aitortzeko eta erabilera emateko jarduerak.
- Kultura-ondarea hedatzea, hau da, sentsibilizazioaren, sozializazioaren eta ondarearen interpretazioaren bidez ondare-balioen berri ematea.
- Babes berezi edo ertaineko kultura-ondasun higiezinak edo haien ingurunea desjabetzeko finantzaketa.
- Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta dauden ondasunak edo babestuak izateko espedientea irekita dutenak zaindu, aberastu eta babesteko beste edozein jarduera.

2024ko urtarriletik 2026ko azarora bitartean burutu beharko dira diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

lazko ekitaldian guztira 22 proiektu lagundu ziren Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko jarduerak sustatzeko deialdiarekin. Diruz lagundu ziren proiektuen artean daude, besteak beste, Bermeoko harresiaren balioztapena, Ortuellako udaletxearen berritze lanak, Arkaiako aztarnategi arkeologikoari balioa ematea eta haren zabalkunde integrala egitea, Bergarako Arrizuriaga kultur espazioari erabilera berriak integratzeko proiektua, Debako HAB historiaurreko bailara ibilbidearen lehenengo fasea bukatzeko lanak edota Marutegiko gaztelua berreskuratzea eta balioa ematea.



## Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

### TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK ETA DONOSTIA SUSTAPENAK MERKATARITZA SUSPERTZEKO EKINDENDAK PROIEKTUAN LAGUNTZEN DUTE

Gaur, Gobernu Kontseiluak **erabaki-proposamena** onartu du, Donostiako Udalaren Donostia Sustapena sozietateari **zuzeneko dirulaguntza emateko**, merkataritza-sektorearen berrikuntza-hubaren esparruan **ekintzailetzarako eta merkataritza suspertzeko Ekindendak proiektuan** lankidetzan aritzeko.

Hiriko merkataritza-eremuak biziberritzeko eta lokal itxien okupazioa sustatzeko, Ekindendak proiektu esperimenterako zuzeneko dirulaguntza bultzatu da. Programa honen bidez, negozio-ideia berriak dituzten **ekintzaileei lagundu nahi zaie** lokal itxietan ezartzen, inguruan dauden saltokiekin bat eginez. Helburu nagusiak hauek dira: hazteko ahalmena duten merkataritza-proiektu ekintzaileak identifikatzea eta haiei laguntzea; ekintzaileak merkataritza-lokaletan ezar daitezen sustatzea, negozio-ideiak merkaturuan bertan probatu ahal izan ditzaten; eta hutsik dauden lokalen okupazioa sustatzea, aholkularitzaren eta laguntzaren bidez.

Helburu horiek lortzeko, Ekindendak laguntza eta babes teknikoko sistema bat du negozioen benetako inpaktua ebaluatzeko eta neurtzeko, eta inguruko merkataritza-sarean bideragarria den egiaztatzeko. Gainera, programaren osagarri, **150.000 €-ko dirulaguntzak** emango dira, hiru ordainketatan banatuta. Lehenengoa 60.000 eurokoa da (% 40), Gobernu Kontseiluak laguntza onartzean; bigarrena, 60.000 eurokoa (% 40), urte honetako azaroaren 30a baino lehen jarraipen-txostena aurkeztu ondoren; eta hirugarrena, 30.000 eurokoa (% 20), ekintzak behar bezala gauzatu direla justifikatu ondoren, 2025eko martxoaren 31 baino lehen.

Dirulaguntza honetarako lankidetzaren esparrua urtebetekoa da, udal mailan metodologia bat garatzeko asmoarekin. Aldi berean, antzeko programak ezartzeko aukerak aztertzen ari dira, Gasteizko Udalarekin eta Bilboko Udalarekin lankidetzan.

## Seguridad

### **EL GOBIERNO VASCO SUSCRIBIRÁ UN NUEVO CONVENIO DE COLABORACIÓN CON LA CRUZ ROJA DE EUSKADI EN MATERIA DE EMERGENCIAS Y PROTECCIÓN CIVIL**

- **Cruz Roja forma parte de las organizaciones de voluntariado adscritas al Sistema Vasco de Atención de Emergencias y posee una gran experiencia en Euskadi en materia de protección civil y socorro a la población**

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno a la firma de un nuevo convenio de colaboración con la Cruz Roja de Euskadi en materia de emergencias y protección civil, iniciativa que supondrá la actualización del vigente acuerdo suscrito por ambas partes en 2019. El nuevo documento posibilitará una mejor coordinación de los programas y acciones del Comité Autonómico de Cruz Roja en el País Vasco con los propios del Sistema Vasco de Atención de Emergencias, todo ello acorde a la normativa vigente y a los recursos humanos y materiales disponibles.

Mediante el nuevo convenio, tal y como se ha venido haciendo desde 1995, el Departamento de Seguridad financiará las tareas incluidas en el Programa Anual de Actividades de este organismo en forma de subvención nominativa que en el ejercicio 2024 asciende a 471.600 euros. Este montante estará destinado a financiar los gastos derivados del cumplimiento de los compromisos que esta institución viene asumiendo en los ámbitos de actuación del territorio y la zona litoral-costa de Euskadi.

Si bien, los medios y recursos de la Cruz Roja vasca que se ponen a disposición de la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco para ser movilizados en situaciones de emergencia, se concretarán en el programa anual de actuaciones previsto, estos se circunscriben a equipos de respuesta inmediata en emergencias relacionados con la intervención psicosocial, búsquedas y salvamento en el medio terrestre y aguas interiores, asistencia sanitaria y bases de salvamento marítimo, entre otros.

En definitiva, el nuevo convenio busca articular la colaboración entre ambas partes ante posibles situaciones de grave riesgo colectivo, catástrofe, calamidad pública, etc., procurando optimizar la utilización de los recursos humanos de esta institución, así como de los medios y equipos materiales que a tal efecto les sean facilitados, reflejando al mismo tiempo el compromiso común de divulgar aquellas recomendaciones y consejos en materia de protección civil que se estimen necesarias a fin de mejorar el conocimiento de los riesgos y de las medidas a adoptar por la ciudadanía vasca ante este tipo de situaciones.

El programa anual se ajustará a lo dispuesto en los planes de protección civil y tácticas operativas, así como a los criterios generales y a las prioridades

establecidas por la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco, organismo encargado de gestionar la subvención.

## Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

### EL GOBIERNO VASCO DESTINA 73 MILLONES DE EUROS AL PROGRAMA EMAITEK PLUS 2024

- El programa Emaitek Plus apoya la actividad no económica de los centros tecnológicos multifocalizados y de los centros de investigación cooperativa de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación
